


hitzen uberan



Euskal Idazleen Elkarteak eskainitako webgunea

BIDEOA



Galtzagorri Elkarteak eta Donostia Kulturak elkarlanean sortu duten *Ilustratzaileen Txokoak* beste ilustratzaile baten lanak hartuko ditu otsailan, Aiete Kultur Etxean. **Eider Eibarren** lanak jarriko dira ikusgai maiatza bitartean. Ilustratutako liburuak, hainbat koadro, puzzle eta eskuz jositako papinaxoak topatuko ditu bisitariak. Bideo honetan ikus dezakezue ilustratzaile bizkaitarra, jo eta su lanean.

AGENDA

- "Ezer ez liburuaz solasean"**
Irakurle taldeak eta klubak
2013-02-06 | Durango
- Arrate Egañaren "Paradisua" mintzagai**
Irakurle taldeak eta klubak
2013-02-07 | Basauri
- "Ni, Vera" liburuaz solasean**
Irakurle taldeak eta klubak
2013-02-14 | Markina-Xemein
- "Letrak eta futbol", hitzaldia**
Hitzaldiak
2013-02-14 | Bilbo
- Yoseba Peñaren "Hodeien adorea" mintzagai**
Liburu-aurrezpenak
2013-02-18 | Igorre
- "Burbuilak" liburuaz solasean**
Irakurle taldeak eta klubak
2013-02-19 | Hernani

Agenda osoa ikusi

Sarrera | Kaia | **Jon Arretxe BCNegra jardunaldietan izango da**



"DERRIGOR EGON BEHARREKO LEKUA DA, GIJON BEZALA", ADIERAZI DIGU

Asteartea, 2013-02-05 |



Otsailaren 9a bitarte, nobela beltzan adituak diren idazleak izango dira **BCNegra** topaketan. Euskal ordezkaritza bat ere izango da jardunaldi hauetan. Asteazken honetan, esate baterako, mahainguru batean hartuko du parte **Jon Arretxe**. *Bilbao, Guggenheim-en itzala luzea da* izeneko solasaldian arituko da, Jose Javier Abasola eta Felix Modroñorekin batera. Hiru idazleen azken lanak Bilbo dute protagonista, hain zuzen. Rosa Ribasek egingo ditu moderatzaile lanak. Duela bi urte ere, BCNegran izan zen Jon Arretxe.

"Derrigor egon beharreko lekua da, Gijon bezala", adierazi digu *19 kamera* (Erein) liburuaren egileak.

BCNegra 2013 egitarauaren baitan, Bartzelonako La Capellan egingo da Bilbo hiria hizpide izango duen mahainguru. Asteazken honetan, otsailak 6, arratsaldeko 16:00etan hasita. Horren ondoren, "Bartzelonako Euskal Etxean izango ditugu, bertan ere, euskal literaturaz zein beraien argitalpenaz luze eta zabal hitz egiteko", adierazi digute Erein argitaletxeok. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da Euskal Etxeako ekitaldia.

"Bilbao, Guggenheim-en itzala luzea da" izeneko hitzaldia eskainiko duzu **BCNegra** jardunaldietan. "19 kamera", hain juxtu, Bilbon kokatuta dago.

Hitzaldia baino, mahainguru izango dela uste dut. Eta zer kontatuko dugun... ba moderatzaileak nahi duena. Berarena izaten da ardura eta lan zailena honelako saioetan.

Mahainguru horren ondoren, zure liburuaz hitz egiteko aukera izango duzu **Euskal Etxean**. Aurretik Gijonen ere izan zinen. Bidaia eta beste irakurle batzuegana hurbiltzea beti izango da aberasgarria idazle batentzat, ezta?

Nik urte gutxi daramat honelako irteerak egiten, baina Gijongoa lehenengoz probatu ondoren oso inportantea dela konturatu nintzen eta orain ahal dudan guztietan joaten naiz Nobela Beltzaren asteetara-eta.

Dueta bi urte ere izan zinen **BCNegra** topaketan. Nobela beltza egiten duzenontzat, aproposagorik...

Bai, derrigor egon beharreko lekua da, Gijon bezala. Baina normalean antolatzaileek, argitaletxeek eta idazleek ere ahalegin handia egin behar dute han egon ahal izateko. Nik esker onez egon behar dut leku horietako antolatzaileekin eta, areago, Erein argitaletxearekin.



Iruzkina (0)

Iruzkina idatzi

izena*

ERAKUSLEIHOA



Eta Karmele?

Samara Velte

Hizazlea: Ainhoa Alberdi - Iraia Elias
Hizostea: Oier Gallan

Samara Velte idatzitako **Eta Karmele?** antzezlanaren argitaratu du Argitaletxea **EDOLK**. Ainhoa Alberdi eta Iraia Elias aktoreen idatzi dituzte liburuak hitzaurreak, eta aurkezpenaren parte hartuko dute egilearekin batera. Gaur aurkeztuko dute liburu Zarauzko **Garoa** liburu denda 19:30ean.

ELKARRIZKETA

Karmele Jaiori elkarrizketa



40 urteren bueltan dira **Ez naiz ni** (Elkar, 2012) liburu pertsonaiak

ERREPORTAJEA

Azkenaldiko poesiari begirada luzatuz



ARRANTZATUAK

Dirurik ez, poltsa bai
2013-02-06 | Berria

Ikusi Jon Benitoren errezitaldia
2013-02-06 | Argia - Koldo Mitxel

Eider Eibarren erakusketa
Ilustratzailearen Txokoan
2013-02-05 | galtzagorri.org

"Itzultzaileak mintzo: Julia Marin"
2013-02-05 | eleazari.org

Angulemako Komiki Jaialdiak
Willem saritu du

E-posta*

Osatu kanta: "Hegoak _____ banizkio, nirea izango zen"
(denigomezkoa, spam-aren kontra)*

Iruzkina bidali

2013-02-05 | Berria

Pentsarazteko jolas ilustratua

2013-02-05 | Argia

HARREMANETARAKO

Oier Guillan & Imanol Ubeda
hitzenuberan@gmail.com

TXIOAK

[@hitzenuberan](#) Bilbo hiriarri buruzko mahainguruan izango da Jon Arretxe idazlea, Bartzelonako La Capellan, gaur 16.00etan #BCNegra <http://t.co/sCIFElsy>

[@hitzenuberan](#) Jane Telleren "Ezer ez" (Alberdania) liburua hizpide gaur Durangoko liburutegian, 19:30ean. Itz.: Juan Mari Mendizabal <http://t.co/PBo6bpx4>

[@hitzenuberan](#) Samara Veltek idatzitako "Eta Kamele?" antzezlanaren aurkeztuko da gaur Zarauzko Garoan, 19:30h [@Argitaletxeaedo @egaroa](http://t.co/XGwxFzg)

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

